

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## KANPEZUKO UDALA

**2024ko martxoaren 5eko osoko bilkuraren erabakiaren laburpena, jaiotzak eta erroldatzea sustatzeko dirulaguntzen deialdia onartzen duena**

BDNS(Identif.): 747537.

Diru-laguntza orokorreko buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/747537>).

**Lehenen. Onuradunak**

Ordenantza honetan araututako laguntzak jaso ahal izango dituzte bizilekua eta benetako bizilekua udal honetan duten gurasoek, gutxienez bi urte lehenago erditu aurretik.

**Bigarrenen. Helburua**

Ordenantza honen xedea da Kanpezuko Udalak jaiotza-tasa sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak eta araubide juridikoa arautzea.

**Hirugarrenen. Oinarri arautzaileak**

2012ko uztailaren 10eko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartu ziren jaiotza-tasa eta erroldatzea sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak, eta 2012ko urriaren 29ko ALHAOn argitaratu ziren (124. zk.).

**Laugarrenen. Zenbatekoa**

Dirulaguntzaren zenbatekoak honako hauek izango dira:

1. Laguntza ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoa izango da, eta ordenantza honetan ezarritako baldintzak betez emango da.

2. Laguntzaren zenbatekoa familia-unitatea osatzen duten aitaren eta amaren errenta-mailetan arabera izango da: hirurehun (300,00) eta seiehun (600,00) euro artekoa.

Horretarako, aurreko ekitaldian deklaraturako familia-unitatearen diru-sarrerak alderatuz, honako bi diru-sarreraren tarte hauek eta horietako bakoitzari dagokion zenbatekoa ezartzen dira:

a) 35.000,00 eurotik beherako errenten kasuan, zenbatekoa seiehun (600,00) eurokoa izango da.

b) 35.000,00 euro edo gehiagoko errentetarako, zenbatekoa hirurehun (300,00) eurokoa izango da.

**Bosgarrenen. Eskabideak aurkezteko epea**

ALHAOn oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko abenduaren 31ra arte.

Santikurutze Kanpezu, 2024ko martxoaren 8a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*